



Esteribarko Udala

2008ko ekitaldia



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
COMPTOS
GANBERA

2010eko urtarrila



Aurkibidea

ORRIALDEA

TXOSTEN BETEARAZLEA EDO LABURPENA	3
I. SARRERA.....	5
II. HELBURUA	7
III. HEDADURA.....	8
IV. IRITZIA.....	9
IV.1. Kontu orokorra.....	9
IV.2. Legezketasuna.....	9
IV.3. Finantza-egoera.....	9
V. 2008KO KONTU OROKORRAREN LABURPENA	10
V.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria (2008).....	10
V.2. Diruzaintzako gerakina.....	11
V.3. Aurrekontuaren emaitza.....	11
V.4. Emaitza ekonomikoaren egoera, 2008ko abenduaren 31n.....	12
V.5. Egoera balantzea.....	13
VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	14
VI.1. Aspektu orokorrak.....	14
VI.2. Langileriaren gastuak	14
VI.3. Zerbitzu eta ondasunen erosketa, eta inbertsioak.....	15
VI.4. Transferentziak	15
VI.5. Zergen bidezko dirusarrerak.....	16
VI.6. Transferentzietako diru-sarrerak.....	16
VI.7. Bestelako diru-sarrerak eta diruzaintza	17
VI.8. Hirigintza	17

ESTERIBARKO UDALAK BEHIN BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

COMPTOS GANBERAREN ERANTZUNA, ESTERIBARKO UDALAK BEHIN BEHINEKO TXOSTENARI EGINIKO ALEGAZIOEI





Txosten betearazlea edo laburpena

Nafarroako Parlamentuak eta Udalaren osoko bilkurak eskaturik, Comptos Ganberak Esteribarko Udalaren kontuak fiskalizatu ditu. Esteribarko Udalak 2.017 biztanle ditu, 28 herritan banaturik. Herririk handienak 444 biztanle ditu, eta txikienak 4.

Txostenak dioenez, Udalak aurkezturiko kontuek egoki islatzen dute Udalaren egoera, baina bi salbuespen aipatzen dira: aurrekontu sail guztietako zenbateko guztiak ez direla kontabilitate orokorrera pasatzen eta, bestalde, diru-eragiketa batzuk hurrengo urteari egozten zaizkio.

2008ko aurrekontu emaitzak 884.579 euroko superabita eman zuen. Urte amaierako diruzaintzako gerakina 2,15 milioikoa zen, gastu orokorretan erabiltzeko, eta Udalak ez zuen zorrik banketxeekin.

Comptos Ganberak bi gomendio nagusi ematen ditu: Udalak kudeaketa egokiak eskatzen duen lanpostuen zerrenda azter dezala, eta horren arabera lanpostuak sor ditzala, egonkortasuna bermatuz.





I. Sarrera

Parlamentuko Bozeramaleen Batzordeak eta Udal osoko bilkurak eskaturik, Comptos Ganberak Esteribarko Udalaren fiskalizazio txostena sartu zuen 2009ko lan programan.

Esteribarrek 143 kilometro kuadroko udalerria da, Iruñeritik Frantziako mugaraino doana. 2008ko urtarrilaren leko datuen arabera, 2.017 biztanle ditu, honela banaturik:

Agorreta	Lekua	19
Antxoritz	Kontzejua	35
Akerreta	Lekua	9
Arleta	Lekua	5
Errea	Lekua	10
Eskirotz	Lekua	18
Eugi	Kontzejua	366
Gendulain	Lekua	10
Idoi	Lekua	16
Ilarratz	Lekua	20
Ilurdotz	Lekua	76
Inbuluzketa	Kontzejua	36
Iragi	Kontzejua	20
Irotz	Lekua	30
Irure	Lekua	7
Larrasoaña	Kontzejua	138
Leranotz	Kontzejua	14
Oloki	Lekua	444
Osteritz	Lekua	12
Saigots	Kontzejua	91
Sarasibar	Kontzejua	27
Setoain	Lekua	4
Urdaitz/Urdániz	Kontzejua	80
Urtasun	Lekua	38
Usetxi	Lekua	12
Zabaldika	Kontzejua	26
Zubiri (capital)	Kontzejua	423
Zuriain	Lekua	31

Aurreko datuak ikusita, aipatzekoa da Olokiaren hazkundera. Izan ere, bertako kontzejua 2006an desagertu bazen ere, hirigintza-garapen handia izan du azken urteotan, Iruñetik hurbil baitago. Gaur egun Esteribarko tokirik jendetsuena da.





Esteribarko Udalak 2008an onarturiko obligazioak 3,8 milioikoak izan ziren, eta onarturiko eskubideak 2,1 milioi. Udalak bost langile ditu:

- Bi funtzionario: idazkaria eta medikua. Azken honetan 2008an hartu zuen erretiroa, eta lanpostua desagertuko da Osasunbideak bere gain hartuko baitu.
- Hiru lan kontratatuak: bi administrari eta udaltzaina.

Udala honako mankomunitate hauetan partaide da: Iruñerriko Mankomunitatea, garraio Olokiraino eramateaz arduratzen dena; Orreaga Kirol Mankomunitatea eta Uharte eta Esteribarko Zerbitzu Mankomunitatea. Iruñerriko ibai-parkean eta Nafar erdialde eta ekitaldeko Pirineoetako Partzuergo turistikoan ere parte hartzen du. Halaber, Garalur elkartearen kidea da.

Toki-entitateari aplikagarri zaion legedia honako honakoa da:

- Nafarroako toki-administrazioari buruzko 6/1990 foru legea.
- Nafarroako toki-ogasunei buruzko 2/1995 foru legea.
- Nafarroako toki-araubidearen eguneratzerako 11/2004 foru legea.
- Toki-araubidearen oinarriak ezartzen dituen 7/1985 legea.
- 251/1993 Legegintzako foru-dekretua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzurako langileen estatutua.
- Kontratu publikoen 6/2006 foru legea.
- Estatuko 38/2003 diru-laguntzen legea.
- Hirigintza-kudeaketari buruzko 35/2002 foru legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru-dekretuak dira, guztiak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak.
- Udalaren burutze-oinarriak eta beste barne arautegia.

Txosten hau sei puntutan egituratuta dago. Hasierako hiruretan sarrera, helburuak eta hedadura azaltzen dira; laugarrenean, iritzia; bosgarrenak finantza egoera nagusiak biltzen ditu; seigarrenak txostena ongi ulertzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkinak, ondorioak eta gomendioak azaltzen ditu.

Auditore batek eta bi auditoretza-teknikarik egin dute txostena. Comptos Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboek ere parte hartu dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udal langileei lana burutzeko eskaini diguten laguntzagatik.





II. Helburua

Nafarroako toki-administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki-ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Esteribarreko Udalaren 2008ko kontu orokorraren erregulartasunaren, finantzarioaren eta legezketasunaren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Udalaren orri-bateratuak alderdi esanguratsu guztietan egoera ekonomiko-finantzarioaren, aurrekontuaren likidazioaren eta lortutako emaitzaren benetako irudia adierazten duen eta legeriak dioen bezala osatua izan den.

b) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari lotua egon ote den.

c) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2008ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

Txostenak, Udalaren antolakuntza, barne-kontrola eta eginkortasuna hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun gomendio eta iruzkinak biltzen ditu.





III. Hedadura

Comptos Ganberak 2008ko Esteribarko Udalaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazioa egin du.

Kontu orokorrak honako egoera aipagarriok biltzen ditu:

- Udalaren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza eta diruzaintzako gerakina.
- Udalaren eta bere erakunde autonomoen balantzea.

Azterlan hau egin dugu Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio-printzipioei eta araei jarraituz, eta baldintzen eta lanaren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura teknikok aplikatuz. Prozedura hauen barnean laginketa eta aurrekontuaren partiden berrikusketa selektiboak erabili dira.





IV. Iritzia

Esteribarriko Udalaren 2008ko kontu orokorra aztertu dugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Egindako berrikuspenaren ondorioz, honako hau deritzogu:

IV.1. Kontu orokorra

Aurrekontu betetzearen zenbateko guztiak ez zazkie egozten dagozkien balantze edo emaitza kontuei.

Transferentziengatik dirusarrerak kutxa irizpideari jarraituz erregistratzen dira. Hori dela-eta, 2009an kontabilizatu den 144.706 euroko zenbatekoa aurrekontutik kanpo gelditu da.

Lur-sailen erosketari dagokion 144.706 euroko zenbatekoa ere ez dago gastuetan erregistraturik, hurrengo urtean ordaindu eta kontabilizatu baita.

Aipatzen diren salbuespenak alde batera utzirik, 2008ko kontu-orokorrek sarreraren eta gastuen likidazioaren, egoera-balantzearen eta egindako operazioen emaitzen benetako irudia adierazten dituzte alderdi guztietan, eta bere ulermen eta interpretaziorako beharrezko informazioa barneratzen dute. Indarrean dagoen legeria publikoak dioenaren arabera egin dira, eta aurreko ekitaldian erabilitako berberak dira.

IV.2. Legezatasuna

Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezatasunaren irizpidearen arabera egin da.

IV.3. Finantza-egoera

Hasierako aurrekontua 1,74 milioi eurokoa eta behin betiko aurrekontua 5,35 milioi eurokoa izanik, eginiko gastuak 3,8 milioi euro izan ziren eta dirusarrerak, berriz, 2,1 milioi. Aurreko urteko datuekin alderatuz, gastuak %91 handitu dira eta diru-sarrerak, ordea, %61 gutxitu dira.

Hasierako aurrekontuaren eta behin-betikoaren arteko aldea inbertsioetan onarturiko aldaketengatik sortu da (3,2 milioi). Inbertsioen finantzaketa aktiboen aldaketari esker egin da (3,5 milioi)

Ekitaldiaren aurrekontu-emaitza doitua 884.579 eurokoa izan da. Diruzaintzako gerakinaz finantzaturiko gastuak dira emaitzaren arrazoi nagusia.

Udalak gastu orokorretarako 2,15 milioi euroko diruzaintzako gerakina dauka, eta ez du zorrik bankeetxeekin.



**V. 2008ko kontu orokorraren laburpena****V.I. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria (2008)**

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontuas	Onarturiko obligazioak	Guztiaren %	Ordainketa gordinak	Onartutako obligazioen %
1. Langileriaren ordainketak	354.950,00	59.200,00	414.150,00	377.415,51	9,81	372.196,88	96,62
2. Ondasun aruntak eta zerbitzuak	504.200,00	137.500,00	641.700,00	623.381,50	16,17	581.163,94	93,23
3. Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. Transferentzia arruntak	386.900,00	50.984,35	437.884,35	408.934,60	10,63	395.221,55	96,65
6. Inbertsio errealak	479.100,00	3.242.244,70	3.721.344,70	2.402.516,40	62,43	2.384.593,93	99,25
7. Kapitallezko transferentziak	15.000,00	125.726,40	140.726,40	35.896,68	0,93	35.896,68	100,00
8. Finantza-aktiboen bariazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9. Finantza-pasiboen bariazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Gastuak, guztira	1.740.150,00	3.615.655,45	5.355.805,45	3.848.144,69	100	3.769.072,98	97,95

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Onarturiko eskubideak	Guztiaren %	Kobrantsa gordinak	Onartutako eskubideen %
1. Zuzeneko zergak	543.100,00	0,00	543.100,00	556.615,56	26,14	508.296,39	91,32
2. Zeharkako zergak	130.000,00	0,00	130.000,00	75.289,12	3,54	49.572,03	65,84
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	54.400,00	0,00	54.400,00	141.543,25	6,65	141.518,38	99,98
4. Transferentzia arruntak	439.150,00	19.000,00	458.150,00	614.208,29	28,84	604.820,22	98,47
5. Ondare-sarrerak	41.022,00	0,00	41.022,00	115.005,18	5,4	113.688,24	98,85
6. Inbertsio errealen salmentak	0,00	22.975,12	22.975,12	118.100,06	5,55	59.820,43	50,65
7. Kapitallezko transferentziak	166.500,00	54.450,00	220.950,00	508.616,19	23,89	496.222,03	97,56
8. Finantza-aktiboen bariazioak	365.978,00	3.519.230,33	3.885.208,33	0,00	0,00	0,00	0,00
9. Finantza-pasiboen bariazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Sarrerak, guztira	1.740.150,00	3.615.655,45	5.355.805,45	2.129.377,65	100	1.973.937,72	92,70





V.2. Diruzaintzako gerakina

Kontzeptua	Itxitako ekitaldia	Aurreko ekitaldia	% aldakuntza
(+) Kobratzeko eskubideak	1.973.124,78	3.208.817,85	-38,51
(+) Sarreren aurrekontuakoak: ekitaldi korrontea	155.439,83	524.924,55	-70,39
(+) Sarreren aurrekontuakoak: ekitaldi itxiak	502.071,78	467.881,34	7,31
(+) Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak	1.315.613,07	2.216.011,96	-40,63
(-) Biltzen zailak diren eskubideak	483.870,43	255.938,00	89,06
(-) Biltzen zailak diren eskubideak	483.870,42	255.938,00	89,06
(-) Ordaintzeko obligazioak	140.031,20	142.200,95	-1,53
(-) Gastuen aurrekontuakoak: ekitaldi korrontea	79.071,71	86.526,07	-8,62
(-) Gastuen aurrekontuakoak: ekitaldi itxiak	13.480,33	9.483,29	42,15
(-) Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak	47.479,16	46.191,59	2,79
(+) Altxortegiko fondo likidoak	1.547.680,32	2.021.997,93	-23,46
(+) Finantza desbideratze negatibo gehituak	107.450,45	0,00	0,00
= Diruzaintzako gerakina guztira	3.004.353,93	4.832.676,83	-37,83
Diruzaintzako gerakina konprometitutako finantzaketa duten gastuak	0,00	0,00	0,00
Konprometitutako errekurtsoen diruzaintzako gerakina	850.254,67	0,00	0,00
Gastu orokorretako diruzaintzako gerakina	2.154.099,26	4.832.676,83	-55,43

V.3. Aurrekontuaren emaitza

Kontzeptua	Itxitako ekitaldia	Aurreko ekitaldia
Onarturako eskubide garbiak	2.129.377,65	5.515.859,09
Onarturako obligazio garbiak	3.848.144,69	2.016.079,26
Aurrekontuaren emaitza	-1.718.767,04	3.499.779,83
Egokitzeak		
Finantzaketa desbideratze positiboak	4.534,25	2.642.698,10
Finantzaketa desbideratze negatiboak	403.839,97	30.335,70
Diruzaintza geldikinarekin bidez finantzatutako gastuak	2.204.040,35	0,00
Merkatal eragiketen emaitza	0,00	0,00
Aurrekontuaren emaitza doituak	884.579,03	887.417,43





V.4. Eraitza ekonomikoaren egoera, 2008ko abenduaren 31n

ZORRA

Kontzeptua		Itxitako urteko zenbatekoa	Aurreko urteko zenbatekoa
61	Langileria gastuak	377.415,51	288.457,10
62	Finantza gastuak	0,00	0,00
64	Kanpoko lan, homidura eta zerbitzuak	623.381,50	524.022,56
67	Ohiko transferentziak	408.934,60	322.960,77
68	Kapital transferentziak	35.896,68	72.361,18
69	Kalkulaturiko gastuak	0,00	0,00
D80	Ekitaldiko eraitza (galera)	0,00	0,00
D82	Galera salmenta, inbertsioetan eta beste ez ohiko galerak	0,00	0,00
D83	Galerak finantza-aktiboetan	0,00	0,00
D84	Bajak eta itxitako aurrekontuen baliogabetzeak	1.543,03	30,03
D89	Ekitaldiko eraitza	0,00	0,00

HARTZEKO

Kontzeptua		Itxitako urteko zenbatekoa	Aurreko urteko zenbatekoa
70	Salmentak	141.543,25	79.405,39
71	Jabego eta enpresari loturiko errenta	115.005,18	61.338,56
72	Produktzioa eta inportazioari loturiko zergak	495.680,97	1.164.724,79
73	Errenta eta ondarearen gaineko ohiko zergak	100.626,89	90.351,59
76	Ohiko transferentziak	614.208,29	486.132,09
77	Kapitalaren gaineko zergak	35.596,82	42.174,82
78	Bestelako diru-sarrerak	0,00	105.606,24
H80	Ekitaldiko eraitza	57.033,11	821.931,87
H82	Inbertsioen salmentetan lorturiko etekinak	0,00	0,00
H83	Finantza aktiboen salmentan lorturiko etekina	0,00	0,00
H84	Itxitako aurrenkuen altak eta preskripzioak	8.529,15	0,00
H89	Ekitaldiko eraitza positiboa	64.019,23	821.901,84





V.5. Egoera balantzea

AKTIBOA

Kontzeptua	Itxitako urteko zenbatekoa	Aureko urteko zenbatekoa
Ibilgetua	7.833.450,05	7.531.054,12
1. Ibilgetu materiala	3.184.309,58	2.893.008,75
2. Ibilgetu ez materiala	175.011,55	172.372,55
3. Erabilera orokorrerako onda. nat. azpieg.	3.745.062,18	3.745.062,18
4. Ondasun komunalak	639.455,84	630.999,74
5. Ibilgetu finantzarioa	89.610,90	89.610,90
6. Bienes y derechos recibidos en cesión o adscripción	0,00	0,00
Zirkulatzailea	3.520.805,10	5.230.815,78
7. Itxitako aurrekontuaren eta aurrekontuz kanpoko zordunak	1.817.684,85	2.683.893,30
8. Aurrekontuaren zordunak	155.439,93	524.924,55
9. Finantza kontuak	1.547.680,32	2.021.997,93
Guztira	11.354.255,15	12.761.869,90

PASIBOA

Kontzeptua	Itxitako urteko zenbatekoa	Aureko urteko zenbatekoa
Berezko fondoak	11.214.232,17	12.619.668,95
1. Ondare eta erreserbak	11.129.755,87	11.777.310,04
2. Emaniko ondare eta eskubideak	20.457,07	20.457,07
3. Ekitaldiaren emaitza ekonomikoa	64.019,23	821.901,84
Hartzekodunak, epe luzera	0,00	0,00
4. Jasotako mailegu, fiantza eta gordailuak	0,00	0,00
Hartzekodunak, epe laburrera	140.022,98	142.200,95
5. Itxitako aurrekontuaren eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	60.951,27	55.674,88
6. Aurrekontuaren hartzekodunak	79.071,71	86.526,07
Guztira	11.354.255,15	12.761.869,90





VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak

Jarraian, Udalak bere antolakuntza, prozedura, kontabilitate eta barne kontrol sistemak hobetzeko aplikatu beharko lituzkeen gomendio nagusiak azaltzen ditugu. Halaber, konklusio eta gomendioa ulertzeko baliogarria izan daitezkeen iruzkin batzuk aipatzen ditugu.

V.I. Aspektu orokorrak

Esteribarko egoera aztertzeke, haren egituraketa kontuan hartu behar da, ezertan hasi aurretik: 2.000 biztanle 11 kontzeju eta 17 lekutan sakabanaturik. Aipatzekoa da kontzejuak ere diru publikoa kudeatzen dutela, kasu honetan milioi bat euro urtean, gutxi gora behera.

Udal langileen egonkortasun falta da nabarmendu beharreko beste kontu bat. Udal langileen zerrendan bost lanpostu badaude ere, 11 dira urtean lanean aritu diren langileak. Langileen bajak eta beste arrazoi batzuek eraginiko kontratazioak, batez ere, administrazio arloan egiten dira, eta Udalak dituen beharrei aurre egiteko dute xede.

Langileriaren egonkortasun faltak Udalaren administrazio lanak zaildu egiten dituzte.

Honakoa gomendatzen dugu:

Udal kudeaketarako beharrekoa den langileen zerrenda aztertu eta hartu beharreko neurriak har daitezela, lanpostuak sortu eta langileen egonkortasuna bermatzeko.

VI.2. Langileriaren gastuak

Arlo honetan gastaturiko zenbatekoa 377.415 euro da, gastu guztien %10. Bertan sarturik daude zinegotzien ordainsariak (91.257 euro), langileenak (198.580 euro) eta gizarte aseguruak (87.578 euro).

Langileriaren gastuen kudeaketa eta kontrola sakabanaturik dago. Funtzionarioen nomina, esaterako, Udalak berak prestatzen ditu; lan kontratatudunena eta Gizarte Segurantzaren kotizazioak, berriz, kanpoko enpresa batek egiten ditu. Eta PFEZren aitortpenak kontabilitatearen arduradunak egiten ditu, GESERLOCAL zerbitzuaren bitartez. Informazioa sakabanaturik egoteaz gain, langileriaren espediente batzuk bete gabe daude, eta honek akatsak sortzen ditu aitorturiko PFEZaren zenbatekoan, Gizarte Segurantzaren kotizazioan eta baita gaizki eginiko ordainketan ere. Akats hauek ondoren zuzendu egiten dira.

“Montepioaren kenketa” aurrekontuz kanpoko kontzeptuaren hasierako saldo hartzekoduna 1.774 eurokoa da. Aurreko urteetatik datorren saldo hori aztertu egin behar da.





Hona hemen gure gomendioak:

- *Langileriaren espedienteak bete egin behar dira.*
- *Langileriaren gastuen kudeaketa eta kontrolerako prozedura martxan jarri behar da.*
- *Aurreko urteetatik datorren “Montepioaren kenketa” kontuaren saldoa aztertu eta erregularizatu egin behar da.*
- *Zinegotzien ordainsariak soldatatzat edo kalte-ordaintzat hartzen diren ehaztu behar da. Izan ere, soldata bada PFEZren kenketa egin behar da. Eta kalte-ordaintzat hartuz gero, ordainketaren arrazoiak azaldu egin behar dira.*

VI.3. Zerbitzu eta ondasunen erosketa, eta inbertsioak

Honakoa da aurrekontuaren diru-sail hauen betetzea:

- *Erosketetan onarturiko betebeharrak 623.381 eurokoak dira, gastuen %16. Aurreko urteko datuekin alderatuz, %19 igo dira. “Kultur ekitaldien kudeaketa” diru-sailak izan du igoera handiena (%36) eta horretan 169.926 euro gastatu dira.*
- *Inbertsioetan onarturiko betebeharrak 2.402.381 eurokoak izan ziren, %62. Aurreko urteko datuekin alderatuz, igoera %200 da. Alde horretatik, aipatzekoa dira Ollokiko pabimentazio eta sare lanak, eta Larrasoañako pabimentazioa. Bi obra-lanetan 690.034 eta 609.226 euro gastatu ziren, hurrenez hurren.*

Arlo honen gainean eginiko lanaren ondorioz, hona hemen gure gomendioak:

- *Aholkulari juridikoarekin idatzizko kontratua egin behar da. Bertan zerbitzuaren baldintzak zehaztu egin behar dira.*
- *Betebeharrak gertatzen den momentuan onartu behar dira, eta ez ordaintzerakoan. Alde horretatik, aipatzekoa da 2008ko aurrekontuak ez dituela biltzen lur-sailen erosketak sorturiko 101.663 euroko gastuak, hurrengo urtean ordaindu eta erregistratu zirenak.*

VI.4. Transferentziak

Ohiko eta kapital transferentzien betetzea honakoa izan da:

- *Ohiko transferentzietan, onarturiko betebeharrak 408.934 euro izan dira, guztiaren %11 eta aurreko urtean baino %26 gehiago. Transferentzia nagusiak kiroldegiaren gastuetarako eginikoa eta gizarte zerbitzuetarako transferentzia izan ziren: 139.080 eta 90.860, hurrenez hurren.*

Udala polikiroldegiaren kontuen gaineko auditoria egiten ari zen, ordainduriko zenbatekoa egokia den jakiteko.

Kapital transferentziei dagokienez, onarturiko betebeharrak 35.896 euro izan ziren, aurreko urtean baino %50 gutxiago. Dirutza hori kontzeju batzuetara eta polikiroldegiaren inbertsioetara bideratu da.





Eginiko lanaren ondorioz, hona hemen gure gomendioak:

- *Dirulaguntza-deialdia egin behar da urtero, interesaturik dauden talde guztiek laguntzen betekizun eta baldintzen berri izan dezaten.*

VI.5. Zergen bidezko dirusarrerak

Hona hemen zergen bidezko dirusarrerari dagokien betetzea:

	2007	2008	Eskubide guztien %	% 2008-2007
I. Zuzeneko zergak	533.768	556.615	26,14	4,28
II. Zeharkako zergak	763.482	75.289	1,36	-90,14
III. Tasak	79.405	141.543	6,65	78,25

Zuzeneko zergei dagokienez, kontribuzioaren bidez lorturiko diru-sarrerak dira nabarmenenak: 374.371 euro. Ibilgailuen gaineko zergari esker, berriz, 100.626 euroko dirutza bildu zen.

Zeharkako zergei dagokienez, instalazio eta obren gaineko zergen bidez lorturiko dirutzak behera egin zuen nabarmen: 763.482 eurotik 75.289 eurora.

III. kapituluaren igoera handienak haurtzaindegia esker lorturiko diru-sarrerak dira, aurreko urtearekin alderatuz 32.872 euro gehiago izan baitira. Aipagarriak dira, halaber lur-sail publikoen jabetzeak, 16.867 euro eman baitute. Hor ere igoera izan da, ordenantza 2006koa izanik, 2007ko martxan argitaratu baitzen.

Gure lanaren ondorioz, hona hemen gomendioak:

- *Osoko bilkuraren aktek zerga, tasa eta prezio publikoen berri eman behar dute, bai zenbatekoa eguneratzen badira, eta baita berdin mantentzen badira ere.*

- *“Lur-sail publikoen okupazioa, merkantzia eta materialekin” izeneko ordenantza berriro egin behar da litzateke, aplikatzerakoan interpretazio ezberdinak egin direlako.*

- *Lizentziak ematean idatzizko jakinarazpena egin behar da, horren berri ofiziala egokia izan dadin.*

VI.6. Transferentzietako diru-sarrerak

Honakoak dirar kapituluotan onarturiko diru-sarrerak:

- Ohiko transferentzietan 614.208 eurokoak dira onarturiko diru-sarrerak. Eskubide guztien %1 dira, eta %27 handitu dira aurreko urteko datuekin alderatuz. Zenbateko nagusia Ogasun Publikoaren zergen partizipazioari dagokio: %72.





- Kapital transferentziei dagokionez, 508.616 euroko diru-sarrerak dituzte, %25 gutxiago aurreko urteko datuekin alderatuz. Jasotako transferentzia nagusiak Larrasoñako obren finantzaketari dagozkie.

Kontabilizazioa kobratzeko unean egiten da gehienetan, eta horregatik Oloki eta Larrasoñako obrei zegozkien 144.706 euroko kapital diru-laguntzak kontabilizatu gabe gelditu dira, hurrengo urtean egin baitzen.

Hona gure gomendioa:

Udal zerbitzuen eta kontabilitateaz arduratzen den pertsonaren arteko komunikazioa hobetu egin behar da, kontabilizazioa dagokoen urtean egin dadin.

VI.7. Bestelako diru-sarrerak eta diruzaintza

Ondare-diru sarrerak 115.005 euro izan zen, aurreko urtean baino %87 gehiago. Zenbateko nagusia kobraturiko interesak dira, onarturiko zenbatekoaren %62.

Ondare desjabetzearen ondorioz lorturiko sarrerak 118.100 eurokoak dira. Oloko lur-sail batean Uharteko Udalarekin batera eginiko eragiketa bati dagokio. Horren kudeaketa Uharteko Udala arduratu zen, eta Comptos Ganberak aztertu egin zuen 2009ko ekainaren 1ean argitaraturiko txostenean.

Bada 116.556 euroko zenbateko bat, Esteribarko Udalak “azalera eskubidea” gatik onarturiko urteko kuotari dagokiona. Gure ustez, udal lur ondareari loturiko diñrusarrerak dira.

Iaz 2,9 milioi jaso ziren lur-sailen salmentaren ondorioz.

Hona gure gomendioak:

- “Azalera-eskubide” en kontabilizazioa dagokion kapituluan egitea.
- Diruzaintzako gerakinaz egin beharreko inbertsioetarako irizpideak zehaztea.
- Zenbateko batetik aurrerako fondoak erabiltzeko, bi sinadura behar dira, baita informatikoki egiten deiren ordainketetan ere.
- Programa informatikoa aztertu, diruzaintza egoerari dagozkion mugimendu guztiak ez baitira jasota: 9.756 euroko aldea dago.

VI.8. Hirigintza

Udalaren arau subsidiarioak 1993ko abenduan argitaratu ziren NAOn. Herri batzuei zegozkien arauen aldaketak, berriz, 2003an argitaratu ziren. Eraitza ikusita, Udalak beste herrienak ere aldatzea pentsatu zuen, baina Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolaketa Departamentuak udal plan orokorra egiteko gomendioa eman zion. Plana burutzeko hitzarmena 2006ko ekainean sinatu zen. Planaren





erredakziorako kontratua 2007ko otsailean sinatu zen, eta lurralde antolaketaren udal estrategiaren hasierako onespena 2008ko ekainean egin zen.

Prozesu hau egiten ari zen bitartean, arau subsidiarioen 30 aldaketa onartu dira, honela banaturik:

2001	1
2004	3
2005	9
2006	5
2007	7
2008	4
2009	1
Guztira	30

11 hirigintza hitzarmen egin dira. Hona hemen datu nagusiak:

Zenbakia/urtea	Tokia	Onarpena hasierakoa NAO	Onarpena behin betikoa NAO	Mota
1/2003	UA 3 Zubiri	2003/06/16 NAO 75 zb.	2003/08/27 NAO 109 zb.	Kudeaketa hitzarmena: Tokiko aprobetxamenduaren % 10 haren balio ekonomikoaren truke
1/2004	UA 3 Zubiri	2004/05/03 NAO 53 zb.	2004/09/20 NAO 113 zb.	Kudeaketa hitzarmena: Tokiko aprobetxamenduaren % 10 haren balio ekonomikoaren truke
2/2004	UA 1 Ilurdotz	2004/04/02 NAO 40 zb.	2004/09/20 NAO 113 zb.	Kudeaketa hitzarmena: Tokiko aprobetxamenduaren % 10 haren balio ekonomikoaren truke
1/2006	17,138 y 561 Olloki	2006/03/20 NAO 34 zb.	2009/05/17 NAO 59 zb.	Kudeaketa hitzarmena: Tokiko aprobetxamenduaren % 10 haren balio ekonomikoaren truke
2/2006	435 y 436 Urdaniz	2006/04/12 NAO 44 zb.	2006/05/17 NAO 59 zb.	Kudeaketa hitzarmena: Tokiko aprobetxamenduaren % 10 haren balio ekonomikoaren truke
3/2006	UA 3 Urdaniz	2006/05/05 NAO 54 zb.	2006/07/31 NAO 91 zb.	Kudeaketa hitzarmena: Tokiko aprobetxamenduaren %10 etxebizitza baten zesioaren truke
4/2006	333 Urdaniz	2006/05/12 NAO 57 zb.	2006/08/09 NAO 95 zb.	Kudeaketa hitzarmena: Tokiko aprobetxamenduaren % 10 haren balio ekonomikoaren truke
1/2007	UA 5 Urdaniz	2006/06/20 NAO 76 zb.	2007/08/20 NAO 103 zb.	Kudeaketa hitzarmena: Tokiko aprobetxamenduaren % 10 haren balio ekonomikoaren truke
2/2007	UB 3 Urdaniz	2007/06/18 NAO 75 zb.	2007/08/20 NAO 103 zb.	Kudeaketa hitzarmena: Tokiko aprobetxamenduaren % 10 haren balio ekonomikoaren truke
3/2007	Zubiri (8 y 10)	2007/06/20 NAO 76 zb.	2007/08/20 NAO 103 zb.	Plangintza-hitzarmena: igogailuak zenbait eraikinetarako
4/2007	Polígono I Olloki (8 y 9)	2007/07/06 NAO 83 zb.	2007/10/05 NAO 125 zb.	Plangintza hitzarmena

Ikusten denez, 11 hitzarmenetik 9 kudeaketa hitzarmenak dira, eta tokiko aprobetxamenduaren %10 balio ekonomikoaren truke aldatzea dute helburu. Beste bi plangintza hitzarmenak dira.

Aipatzekoa da Ollokin eginiko hirigintza jarduera. Izan ere, desagerturiko kontzejua izatetik, udal lekurik jendetsuena izatera pasatu da. Garapena 1993ko arau subsidiarioen ondorioz gertatu da.





Udal lur ondareari dagokionez, ez dago erregistrorik, baina bai ondasunen zerrenda. Horren arabera, 13 lur-sailek osatzen dute lur ondarea.

Hona gure gomendioa:

Ondasun zerrenda eta Udal lur ondarearen erregistroa egin behar dira. Lur-sailak ez ezik, ondareari loturiko etekinak ere jaso behar dira.

Txosten hau indarrean dagoen legediak eskaturiko tramite guztiak bete ondoren onartu da.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 26an.

Luis Muñoz Garde, Lehendakaria





Esteribarko Udalak behin behineko txostenari aurkeztutako alegazioak



AYUNTAMIENTO
DE ESTERIBAR
31630 (NAVARRA)
TFNO:304071



ESTERIBARKO
UDALA
31630 (NAFARROA)
FAX:304128

CÁMARA DE COMPTOS DE NAVARRA	NAFARROAKO COMPTOS GANBERA
20 ENE. 2010	
ENTRADA / SARRERA N.º...007.....	

D. FRANCISCO JAVIER BORDA GARDE, en representación del
AYUNTAMIENTO DE ESTERIBAR ante La Camara de Comptos comparezco y
como mejor en Derecho procede

EXPONGO

Que habiendo recibido el informe provisional de fiscalización sobre el
Ayuntamiento de Esteribar del ejercicio 2008, formulo las siguientes

ALEGACIONES

Queremos manifestar que este Ayuntamiento está agradecido a la
Cámara de Comptos por el trabajo realizado, explicando que las
recomendaciones y conclusiones que se desprenden de su informe ya se
aplican o se realizarán en breve conforme a los detalles que analizamos a
continuación.

Respecto a su epígrafe IV. Opinión:

IV.I. Cuenta General

Se nos indica que no todos los importes de la ejecución presupuestaria
se ven reflejados en las cuentas de balance o de resultados, habría que hacer
varias puntualizaciones.

Al ser El Ayuntamiento de Esteribar un municipio con población inferior
a 3.000 habitantes se lleva la Contabilidad Simplificada, siguiendo para la



contabilización la normativa del D.F. 273/98 de Instrucción de Contabilidad Simplificada, este se basa en contabilidad presupuestaria. Existen dos estados que adaptan la información presupuestaria a los que se regulan para las entidades obligadas por la Instrucción General de Contabilidad (más de 3.000 habitantes): El Balance y la Cuenta de Resultados.

Así como en la instrucción General de Contabilidad se contabilizan operaciones directamente a este estado, en la de Simplificada para confeccionarlos se extraen de los datos de contabilidad presupuestaria; es decir, el contable no puede cambiar dichos estados ya que son los programas informáticos los que directamente toman la información necesaria para confeccionarlos.

Además, por ejemplo, en la Contabilidad General los fondos propios del Pasivo del Balance se van acumulando año a año dada la contabilización que ellos realizan. En Simplificada los fondos propios se hallan como diferencia entre el total del Activo y el resto del Pasivo (Regla 102 del D.F. 273/98), dato que extrae el programa informático sin intervención del contable.

Desde 1999 llevamos esta Contabilidad, los programas (hay 5 empresas informáticas que lo venden) estaban testados por el Gobierno de Navarra imponiéndoles una serie de condicionantes y requisitos para adecuarlos a la normativa y a sus criterios. En los primeros años de implantación de esta contabilidad, los responsables de la Contabilidad cooperamos tanto con las empresas informáticas como con el Gobierno de Navarra, que era quien daba por buenos los programas, en la labor de depurar los posibles errores que pudieran dar. Esto supuso un esfuerzo de todos y horas de trabajo invertidas en la depuración de errores.

Hace 10 años que se implantó dicha contabilidad, con lo que se presupone que los fallos que podía haber ya estarán subsanados. De todos



maneras, nos hemos puesto en contacto con la sección de Contabilidad del Departamento de Administración Local donde les hemos enviado el balance con las anotaciones que Vds. han realizado, informándonos que van a estudiar su informe con la finalidad de mantener una reunión conjunta para estudiar el programa y /o programas informáticos existentes, viendo si existe error o no en la llevanza del balance .

VI. Comentarios, conclusiones y recomendaciones.

V.I. De carácter general.

Se recomienda analizar la plantilla necesaria para la gestión municipal y adoptar las medidas precisas para dotarla de estabilidad.

El tema se ha corregido ya que durante el año 2009 se han cubierto por oposición las dos plazas vacantes de auxiliar administrativo.

VI.2. Gastos de Personal

Se dice que los gastos de personal están dispersos porque las nóminas de funcionarios se realizan en el Ayuntamiento, las del personal laboral y cotizaciones a la seguridad social en una asesoría y las declaraciones de IRPF en la contabilidad municipal.

Nuestra explicación es que desde contabilidad se realizan las declaraciones de IRPF porque la asesoría laboral sólo controla las retenciones de los trabajadores y no otras de profesionales, digase: arquitectos, peritajes, etc. . En contabilidad se registran todas las retenciones tanto de personal como las de profesionales, luego es ahí donde se concentra toda la información en cuanto al IRPF.

Se comenta que existen pagos erróneos que se corrigen posteriormente. Este denominado pago erróneo del IRPF no se debe al control disperso de la



información del personal. Hubo un pago duplicado del 3º trimestre de IRPF debido a un error del programa de Hacienda del Gobierno de Navarra: al hacer el pago telemático por medio de la web de Hacienda nos informó que no se había podido realizar.

Como finaba el plazo y se nos informó telemáticamente de que la liquidación no estaba pagada, se pagó directamente mediante impresión en papel en el Banco de la depositaria municipal.

Al día siguiente se comprobó que aunque el pago telemático nos había dado fallido sí que se había realizado con lo que hubo un pago duplicado. Hacienda de Navarra no nos devolvió directamente ese pago duplicado aunque el fallo fue suyo, y hubo que hacer una instancia reclamando el dinero; vamos, que no asumieron su error al momento.

Dicho esto, creemos que no se puede generalizar en cuanto a los fallos, cuando el más gordo no fue debido al control de este Ayuntamiento sino a un fallo de Hacienda.

En cuanto a las diferencias en el Montepío, anualmente antes de la primera nómina del año se consulta cuánto va a ser al Gobierno de Navarra debido sobre todo a la complejidad de la nómina del sanitario. Luego lo que cargan en la cuenta de repartimientos no suele coincidir, diferencia no achacable al Ayuntamiento. La diferencia surge en el 2008 que es cuando se jubila el sanitario local. Hemos realizado la gestión en Montepíos y las retenciones han sido correctas, la diferencia deriva de que se giró al año siguiente y hay una pequeña diferencia a nuestro favor que deriva del sanitario local..

Respecto a su recomendación de redefinir las retribuciones de los corporativos, se ha adoptado un acuerdo en sesión de 17 de diciembre de 2009 que justifica y clarifica la situación del Sr. Alcalde.

VI. 3. Compra de bienes y servicios e inversiones



En cuanto a la recomendación de formalizar un contrato con el asesor jurídico en que se regulen por escrito las condiciones en que se realiza la prestación de servicios, a partir de este año se emitirá factura mensual o bimensual respecto de los informes, minutas de honorarios por recursos, etc, que se puedan presentar.

Respecto a reconocer las obligaciones de pago en el momento en que se producen y no en el momento del pago ya que en los presupuestos del año 2008 no se recogen las obligaciones de 101.663 euros por la adquisición de terrenos que se pagan en el año 2009.

Se explica que en las obligaciones por adquisición de terrenos la facturación a los vendedores se ha realizado según los pagos, dado que así se acordó con ellos. Es por eso que no se contabilizó el total de la compra en el 2008 sino que según se ha ido pagando y facturando se ha ido contabilizando. Cumplimos la Regla 132 del Decreto Foral 273/1998 que dice: Las facturas se imputarán contablemente en función de la fecha de la misma.

VI. 4. Transferencias

Estamos totalmente de acuerdo en que este Ayuntamiento debe abrir una convocatoria pública para que los colectivos interesados: culturales, festivos, deportivos, etc. presenten sus peticiones de subvenciones en cumplimiento de la Ordenanza municipal de subvenciones vigente. De esta manera, la Corporación dispondrá de toda la información agrupada y será más fácil adoptar decisiones.

VI.6 Ingresos por transferencias



En cuanto a que los ingresos por transferencia se registran según el criterio de caja; la gran mayoría se imputan según el criterio de devengo, y ha habido dos excepciones:

1. Obra realizada en Olloki. Al tener dos subvenciones diferentes la confusión contable fue que se creyó que sólo había una y los cobros se imputaron a una única subvención. En 2009 se ha subsanado el error y se ha reconocido la 2ª subvención.
2. Obra de Larrasoaña, el error fue subsanado en 2009 al incorporarse la cantidad pendiente de subvencionar que estaba pendiente desde octubre del año anterior .

VI. 7. Otros ingresos y tesorería.

En cuanto al criterio de contabilización de la parcela de Olloki que gestionó el Ayuntamiento de Huarte, se ha contabilizado como enajenación de terreno (capítulo 6) dado que existe opción de compra según el convenio. Contabilizarlo como concesión (capítulo 5) o como enajenación créo que sería cuestionable y cuestión de criterios.

En cuanto a la diferencia en el estado de tesorería debido a un error en el programa se ha dado aviso a la empresa que lleva el mantenimiento del software para que lo subsane.

VI.8. Urbanismo

Respecto a las tramitaciones urbanísticas, el informe ha detectado y reflejado la intensa gestión urbanística que se ha llevado a cabo entre los años 2005 a 2009 y que ha llevado al Ayuntamiento a plantearse la redacción de un nuevo Plan Municipal, ahora en tramitación.




Por último, respecto al patrimonio municipal del suelo, refleja que existe una relación de parcelas, recomendando implantar un sistema de inventario y de registro de patrimonio, incluyendo los rendimientos afectos al mismo.

Respecto a este tema, se lleva el inventario valorizado desde la contabilidad. Se ha hablado e incluso pedido presupuesto en el año 2007 a la empresa de servicios, Trabajos Catastrales SA para realizar un inventario actualizado de los bienes municipales pero se observo que el inventario que ofrecían dejaba fuera de inventariar las calles de las diferentes localidades del Valle. Se dejó pendiente de estudio una rebaja de honorarios que pareció excesiva así como de que el inventarios fuera completo y por tanto, incluyeran tales bienes en el conjunto de patrimonio municipal.

Por todo ello,

SOLICITO se tenga por presentado el presente escrito con las aclaraciones formuladas, en Esteribar a 19 de enero de 2010

EL ALCALDE-PRESIDENTE,





Comptos Ganberaren erantzuna, Esteribarko Udalak behin behineko txostenari eginiko alegazioei





COMPTOS GANBERAREN ERANTZUNA, ESTERIBARKO UDALAK BEHIN BEHINEKO TXOSTENARI EGINIKO ALEGAZIOEI

Udalak aurkezturiko alegazioei dagokienez, partida biko kontabilitateak gastu guztien erregistroa egitera behar duela gogoratu nahi dugu. Beraz, fondo propioen kalkulua aktibo osoarena eta gainerako pasiboaren arteko diferentziaren arabera egiteak –bestelako txostenik gabe- sistema bera baliogabetzen du, akatsak aurkitzea galarazi egiten duelako.

Gainerako alegazioei dagokienez, txostenaren funtsarekin zer ikusirik ez duten azalpen edo justifikazioak dira.

Beraz, alegazioak txostenaren gehigarritzat argitaratu, eta hura behin betiko egiten da.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 26a

Luis Muñoz Garde, Lehendakaria

